



## KALITATEA 'Q' BAT BAINO GEHIAGO DA

Gaur EITBko arduradunek euren kudeaketari Eusko Jaurlaritzak emandako saria ospatzen da BECen, marketing kanpaina ikusgarria zalantzarik gabe.

Halere, EITB Taldean aritzen diren langileen ordezkariok beste iritzi bat dugu kalitateaz, urrezko 'Q' baten haruntzago. Are gehiago, euskarazkoa eta publikoa den komunikabide zerbitzu batetaz aritzen bagara.

Ziurtagiria esleitzen duten arduradunek gugana jo zutenean azaldu genizkien gabeziak airean gelditu ziren, batere kontutan hartu gabeak gelditu baitziren. Halere ez gaitu harritzen, sari hauek kudeatzeko modua ezagutu ondoren. Besteak beste, langileen ordezkariok pairatzen dugun zuzendaritzen "zero informazio" estrategiak salatu genituen, zuzendaritzekin biltzeko izaten ditugun trabak edota negoziazioak hasteko hartu behar izaten ditugun presio neurriak.

Oraingoan ere hain zuzen ere aipatutako beste presio neurri bat hartzera behartuta ikusten dugu geure burua, izan ere ohi bezala zuzendaritzek negoziazioak atzeratu eta atzeratzen ari da. ETBn hartu zuten egiturako plantila 2005ean negoziatzeko konpromisoa dagoeneko bi urte bete gabe daramate, aitzakiak aitzaki; bai eta Taldeko enpresetan adostutako lan poltsa sistema ezberdinak martxan jartzearena ere.

Kalitatezko enpresa bat aurrera eramateko kalitatezko lan baldintzak eta motibazioa behar dira. Azpikontratetako langileen lan baldintzak hain lotsagarriak dira, ezen gurea bezalako lan bokazionala utzi eta beste lan eremu batzuetara jo egiten dute langileek. Baina hori ez zaie axola zuzendariei, "haragi freskoa" merke aurkituko baitute berriro.

Kalitatezko enpresa batek kalitatezko egitura behar du noski, baina lehen urratsa egitura edukitzea da sikiera. EITBNetek dagoeneko bost urte darama martxan eta... ez du batere langile finkorik -ordezkariak ere ez beraz, horregatik EITBNET tatxaturik agertzen dugu- eta %80a azpikontrataturik! Joera gainera Taldean gehiago esternalizatzea edo pribatizatzearena da, sarritan aipatzen duten «Euskal Ikusentzunezkoen Sektorea indartzea» horretatik urrun.

Kalitatezko komunikabide izateko langileak ondo prestatuta egotea ere behar da, langile guztientzako prestakuntza planen bidez. ETB Bilbon hasi denetik dituen akats tekniko logikoak asko arin zitezkeen alde aurretiko prestakuntza edukita. Baina honetan ere, eta urtero bezala, prestakuntza plana aurkeztu behar zutenaren bezpera aurkeztu digute.

Kalitatezko komunikabide publikoa izateko lehentasunak beste nonbait jarri behar dira. Audientziak eta zero defiziten aurretik edukien kalitatea jarri behar da.

Kalitatezko euskal enpresa publikoa izateko langilegoa euskalduna izan beharko lukeelakoan gaude zalantzarik gabe. Langileok euskalduntzeko planik sortzeaz ez dute ezer entzun nahi, diskurtso edo testu dotore batetan jartzeko ez bada. Eta non errezagot EITBn baino?

Esanak esan, langileok beste iritzi bat dugu kalitateaz, eredu merkantilista eta itxurazkoetatik kanpo dagoena.

**Egituren eta kontraten baldintzen negoziazioa orain!!!  
Benetako kalitatezko EITB baten alde!!!**